



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/10/09

Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi egin dabe Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Artxibategi Historikoaren kudeaketea bere gain hartzeko Foru Dekretua

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako Batzordeak 75/2018 Dekretua berretsi dau gaur goizean. Dekretu horren bitartez, “Bizkaiko Lurralde Historikoan dagozan estaduko titulartasuneko artxibategien kudeaketa arloko egitekoen eta zerbitzuen traspasoa” onesten da. Batzarretako taldeek aho batez onetsi dabe testua.

Beste alde batetik, EH Bilduk eskatuta, Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako Foru Diputatua batzordera etorri da, gai biren ganean berba egiteko.

Lehenengo, Meritxell Elgezabal batzordekideak, Bizkaiko Areto Futboleko klubek aurkeztutako kexak bideratu deutsoz Aldundiko arduradunari, euren eretxiz “beste lurralde batzuetako taldeen aurrean bazterketa ekonomikoa jasaten dabelako”. Elgezabalek emon dituan datuak kontuan izanda, Bizkaiko Futbol Federazioak emoten dauen diru-laguntzea beste Lurralde batzuek emoten dabena baino txikiagoa da, eta horrek “kalte ekonomikoak eragin deusiez gizonezkoen eta emakumezkoen taldeei”.

Foru Diputatuak argitu dauenez, ez da Aldundiaren eskumena, Bizkaiko Futbol Federazioa erakunde pribadua dalako, baina bertan egon diranei federazioak berak emondako erantzuna azaldu deutse. Federazinoko kideek Lorea Bilbaori jakinarazo deusienez, banaketarako erespideak “estadu mailako kategoriatan dagozan taldeak dituen erakundeen aldekoak dira, eta banaketa horretatik kanpo geratzen dira lurralde mailako kategorietan parte hartzen dabena”.

Aurton, Federazioak, diru horren parte bat, beste gauza batzuen artean, kide diran erakunde guztientzat baloiak erostera edo epaileentzako erropea erostera bideratu dau.

“Gure eskumenekoa balitz, beharbada beste modu batean jarduteko akordioa lortuko geunke”, adierazo dau Lorea Bilbaok, eta barrero berretsi dauen “gai honek ez jagoku guri eta, hori dala eta, beste batzuek erabagiten dabena errespetau behar dogu”.

Beste alde batetik Txusa Padrones batzordekideak, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek Ondare industrialaren ganean emon dituen pausuak zehazteko eskatu deutso Foru Diputatuari. Lorea Bilbaok adierazo dauenez, Eusko Jaurlaritzak egin dauen inbentarioa erabilgarri dago daborduko bere webgunean; bertan, ondare industrialak osatzen dabena elementuak jasoteaz aparte, horreen egoerea be zehazten da. Lau erakundeek, gai horren inguruko lau bilera egin ditue guztira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eretxiz, beharrezkoa da, elementu horreek balioan jardez eta barrizteaz aparte, etorkizunean zein erabilera euki leikien aztertzea. Aurrera erotzen ari diran ekintzen artean, Lorea Bilbaok azpimarratu egin dau, Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteagaz (IOHLEE-AVPIOP) batera, ondare industrialaren balio sozialaren ganeko jardunaldiak antolatu dirala urriaren 15ean eta 16an Bilbon eta

Barakaldon. Horrez gain, Foru Aldundiak, Unesco Etxeagaz lankidetzarako protokoloa sinatzea aurreikusten dau, gazteen artean ondarearen inguruko sentsibilizazio programea aurrera eramateko helburuagaz.

UDALEKUAK ETA ERROMANIZAZINOAREN MUSEOA

Eguneko gai zerrendea, arauz besteko proposamen bigaz bukatu da. Bata be ez da onartu. Lehenengoan, “Udalekuak programaren barruan 7 eta 13 urte arteko umeentzat eskaintzen dan plaza elebidun kopurua euskeraz eskaintzen dan kopuru bera izan daitela” eskatzen eutsan Talde Popularrak Aldundiari

Proposamena aurkeztu dauen Eduardo Andrések argitu dauenez, proposamenaren helburua ez da euskeraz eskaintzen dan plaza kopurua murriztea, plaza elebidun kopurua handitzea baino. Talde guztiak, proposamena aurkeztu dauena eta Talde Mistoa izan ezik, ekimenaren kontra agertu dira, “Bizkaiko umeen %100ak eskolan gitxieneko euskera mailea daukiela” adierazoz eta, hori dala eta, “proposamena ez dator bat egungo errealidadeagaz”.

Bigarren ekimenean, Podemos Bizkaia taldeak Foruan Erromanizazioaren museoa sortzeko aukerea aztertzeko eskaria egin dau “egin diran aurkikuntza barriak baliauz, Urdaibaiko eskualdea eta bertan dagon balio arkeologikoa balioan jarteko eta bultzatzeko xedez”. Arauz besteko proposamena ez da onartu, alde bozkatu daben bakarrak Podemos Bizkaia eta Talde Mistoa izan diralako.

Kontrako botoa emon daben Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak eta abstenidu egin diran EH Bildu eta Talde Popularra bat etorri dira esatean gai horrek ez daukala lehentasunik, eta “baliabide guztiak aztarnategia babestera eta ezagutzera bideratu behar dirala”.

NOTA DE PRENSA

09/10/18

Las Juntas Generales de Bizkaia ratifican el Decreto Foral por el cual la Diputación Foral de Bizkaia asume la gestión la gestión del Archivo Histórico de Bizkaia

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha ratificado esta mañana el Decreto Foral 75/2018 por el cual se aprueba “el traspaso de funciones y servicios en materia de gestión de archivos de titularidad estatal sitios en el Territorio Histórico de Bizkaia”. Los grupos junteros han aprobado de manera unánime el texto.

Por otra parte la Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha comparecido ante los grupos a petición de EH Bildu para tratar dos asuntos.

En primer lugar, la apoderada Meritxell Elgezabal ha trasladado a la responsable foral las quejas presentadas por clubes de Fútbol Sala de Bizkaia por lo que consideran “una discriminación económica respecto a los clubes de otros territorios”. Según datos ofrecidos por Elgezabal, la subvención entregada por la Federación Vizcaína de Fútbol es menor a la entregada por otros Territorios, lo cual “ha supuesto perjuicios económicos tanto a clubs masculinos como femeninos”.

La Diputada Foral, si bien ha aclarado que ésta no se trata de una competencia foral al ser la Federación Vizcaína de Fútbol una entidad privada, ha transmitido a los allí presentes la respuesta ofrecida por la propia federación. Según le han trasladado a Lorea Bilbao, los criterios de distribución “favorecen a las entidades con equipos de categorías estatal, dejando fuera del mismo a las que participaban en las categorías territoriales”.

Este año, la Federación ha optado por distribuir parte de ese dinero a, entre otras cosas, comprar balones para todas las entidades asociadas o a comprar ropa al estamento arbitral.

“Si fuera de nuestra competencia tal vez hubiéramos alcanzado un acuerdo para actuar de otra manera”, ha manifestado Lorea Bilbao, para después reiterar que “este tema concretamente no nos corresponde así que nos toca respetar lo que otros deciden”.

Por otra parte, la apoderada Txusa Padrones ha solicitado a la Diputada Foral que detallara los pasos dados por el Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales en torno al patrimonio industrial. Lorea Bilbao ha manifestado que el inventario elaborado por el ejecutivo vasco ya se encuentra disponible en su página web; éste, además de recoger los distintos elementos que conforman el patrimonio industrial, también detallan su estado. Las cuatro instituciones han celebrado un total de cuatro reuniones interinstitucionales en torno a este tema.

Para la Diputación Foral de Bizkaia es necesario, no solo poner en valor y restaurar esos elementos, sino también estudiar qué uso puede dárseles en el futuro. Entre las acciones que están llevando a cabo, Lorea Bilbao destaca la organización, junto a la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública (AVPIOP), de unas jornadas que tendrán lugar los días 15 y 16 de octubre en Bilbao y en Barakaldo sobre el valor social del patrimonio industrial. Asimismo, la Diputación Foral prevé firmar un protocolo de

colaboración con Unesco Etxea con el objetivo de llevar a cabo un programa de sensibilización entre la juventud en torno al patrimonio.

UDALEKUAK Y MUSEO DE LA ROMANIZACIÓN

El orden del día se ha completado con el debate y posterior rechazo de dos proposiciones no de norma. La primera de ellas, del Grupo Popular, instaba a la Diputación Foral “ofertar en el Territorio de Bizkaia igual número de udalekus y plazas tanto en euskera, como en bilingüe para menores de 7 a 13 años de edad”.

El proponente, Eduardo Andrés ha aclarado a los presentes que la intención de la propuesta no es la de disminuir el número de plazas en euskera sino la de incrementar las bilingües. Todos los grupos, a excepción del proponente y Grupo Mixto, se han opuesto a la iniciativa argumentando que “el 100% de niños y niñas de Bizkaia están escolarizados en un mínimo de euskera” y que por lo tanto, “no coincide con la realidad actual”.

En la segunda iniciativa, Podemos Bizkaia instaba a la Diputación Foral a estudiar la posibilidad de crear un museo de la Romanización en Bizkaia en el municipio de Forua “aprovechando los nuevos hallazgos, con el objetivo de poner en valor e impulsar la comarca de Urdaibai y todo el valor arqueológico que en ella hay”. La proposición no de norma, sin embargo, no ha salido adelante al contar únicamente con los votos favorables de Podemos Bizkaia y Grupo Mixto.

Tanto el grupo Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, que han votado en contra, como EH Bildu y Grupo Popular, que han optado por la abstención, han coincidido en que ésta no se trata de una prioridad, y en que “hay que emplear los recursos en proteger y conocer el yacimiento”.